




Bertso ikasgela Aiaraldea-ko ikastetxeetan



AIARALDEA BERTSOZALE

2020-2021-eko kurtso berezi honetan ere, bertsolaritza saiok izan ditugu Aiaraldeako ikastetxeetan. Bertsoak ezagutzeko, egiteko, moldatzeko... aukera izateaz gain, aitzakia ederra izan da hizkuntzarekin jolasteko.

15ean behin landu dugu bertsolaritza 5. eta 6. mailako ikasgeletan. Mota askotako ariketa eta ekintzak egin ditugu. Bat batekotasuna lantzeko ariketa eta jolasak, egun berezietarako bertso sortak egin, eskolarteko bertso txapelketarako bertsoak prestatu, gabonak, euskararen eguna, kurtso amaierako sortak...

'Bertso ikasgela' plataformari digitalari esker hainbat baliabide erabiltzeko aukera izan dute ikasleek, jolasak, bertso sortak, bideoak,...

Laudio, Amurrio, Aiara, Artziniega eta Urduñako udaletxeen laguntzaz gauzatu du proiektu proiektu hau Arabako Bertsozale elkarteak.

GELAZ GELAKO BERTSO BILDUMA

Egín KLIK bertsoak ikusteko !!!



AMURRIO

[Aresketa ikastola- Amurrio- 5 . A](#)

[Aresketa ikastola- Amurrio- 5. B](#)

[Aresketa ikastola- Amurrio- 6. A](#)

[Aresketa ikastola- Amurrio- 6 B](#)

[Lukas Rey- Amurrio- 5. A](#)

[Lukas Rey- Amurrio- 5. B](#)

[Lukas Rey- Amurrio- 6 A](#)

[Lukas Rey- Amurrio- 6 B](#)

[Amaurre- Amurrio- 5. maila](#)

[Amaurre- Amurrio- 6. maila](#)

[Zabaleko- 5. maila](#)

[Zabaleko- 6. maila](#)

ARTZINIEGA

[Arteko gure Ama- Artziniega- 5.](#)

[Arteko gure Ama- Artziniega- 6.](#)

AIARA

[Etxaurren ikastola—Aiara- Berdeak](#)

[Etxaurren ikastola—Aiara- Horiak](#)

LAUDIO

[Latorro-Laudio- 5D1](#)

[Latorro-Laudio-5. D2](#)

[Latorro-Laudio- 5. D3](#)

[Latorro-Laudio- 6. D1](#)

[Latorro-Laudio-6. D2](#)

[Latorro-Laudio- 6. D3](#)

[Laudio Ikastola- Laudio- 5. A](#)

[Laudio Ikastola- Laudio- 5. B](#)

[Laudio Ikastola- Laudio- 6 .A](#)

[Laudio Ikastola- Laudio- 6 .B](#)

[La Milagrosa- Laudio- 5. A](#)

[La Milagrosa- Laudio- 5. B](#)

[La Milagrosa- Laudio- 6. A](#)

[La Milagrosa- Laudio- 6. B](#)

[Fabian Legorburu- Areta- 5. maila](#)

[Fabian Legorburu- Areta- 6. maila](#)

URDUÑA

[Aintzinako Andra Mari- Urduña- 5.](#)

[Aintzinako Andra Mari- Urduña- 6.](#)

[Urduña eskola- Urduña- 5. maila](#)

[Urduña eskola- Urduña- 6. maila](#)

ARABAKO 14 urtez azpiko eskolartekoa

AIARALDEAN

Aiararaldeako 10-14 urte bitarteko haur eta gaztetxoak, Arabako eskolarteko bertso idatzien lehiaketan parte hartzearen ondorioz, sailkatutako taldeak, Amurrioko 'katekesi' aretoan elkartu ziren, Maiatzaren 28an, Aiaraldeako eskolarteko bertso idatzien topaketa eta sari banaketa ospatzeko. Arratsaldeko 18:00etan, herri eta eskola ezberdinetako ikasleek bertso jaialdia gauzatu zuten. Taldeka idatzitako 12 bertso sorta saritu ziren. Diploma Eder bat jaso zuten opari. . Eguna giro ederrean pasatzeko aukera izan zuten bertaratuek. Ekainaren 5ean izan zen Arabako eskolartekorako finalera, Aiaraldeako hiru talde sailkatu ziren. Haurrek, Zigoitiako frontoian, Aiaraldea ordezkatu, bertsoak kantatu eta sari polita jaso zuten bueltan, Irailaren 'Hontza Xtreme' abentura parkean egun pasa jaso dute opari. Zorionak guztiei!



BBG eguna AGURAINEN



Aguraingo Harresi Aretoan izan zen Ekainaren 15ean Bertsoa bizi gazte eguna eta bertan jokatu zen 14 urtetik 18 urtera bitarteko Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala ere.

10:00etan lehiaketara aurkeztutako bideoklipak eta mokoka formatuko bideo laburrak proiektatu ziren, eta bertan jakinarazi da zeintzuk izango diren irailaren 1, 2 eta 3an Manurgako egonaldia sari moduan eskuratu zuten gazteak.

Bat-bateko saioaren unea heldu zen gero. Gasteizko Maddi Agirre, Hegoi Amabizka eta Eukene De los Aires, Aramaioko Danel Herrarte eta Gari Arexolaleiba eta Aguraingo Beñat Cano izan ziren hiru eskualdeetan egindako topaketetan aukeratutako 6 finalistak.

Maddi Agirreri Aitor Ugartek jantzi zion txapela, buru onean dagoela gogoraziz, eta iazko lekukoa jasotzen duen egurrezko mikrofonoa pasatzean sendo kantatu zuen "Oinordetzan pasatzea da zure misioa, inoiz ere ez da dila eten transmisioa". Harro eta arduraz kontziente hartu zuen Maddik lekukoa "gazteriaren lana da orain txinparta su bihurtzea, jarrai dezagun bertsolaritzan egiten gure bidea". Luzaroan gogoan izango duen txapelketako oroi-garri borobila eraman du etxera.



ni banax
arabakoa

BERTSO ESKOLAK

2021-2022 kurtsoari begira, 10-16 urte bitarteko ume eta gazteentzat bertso eskolak jarriko ditugu martxan Amurrion eta Laudion.

ZATOZ GUREKIN...

ETA AIARALDEA BERTSO ESKOLEZ

BETEKO DUGU!!!!

AIEBE Aiara eskualdeko bertso-eskola

Arduraduna: Unai Mendibil
e-posta: trunkatun@hotmail.com

Arabako Bertsozale Elkarte
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.com

inscripción
online

[IZENA EMATEKO](#)

